

Armanak Uskara

edo

Z

iberouko Egunaria

1904 betharras ourtzekeo

Jinkoa eta Herria !
Zuhurtarazuna eta lana !
Eta biñi bethi Uskalduna !
Iao ! Iao !

I-a-a-a-a-o-o-o-o-o !

SALTZEN DA

Maolen

DETCHERRY enian

Atharratzen

MENDIONDO-SANTZ enian

Prezioa : SOS BAT



BEGITHARTE HORIEK :

- ☺ *erran nahi da* : Estiapen hastia *edo* argizagi oso.
☼ " Argizagi azken laordena.
☉ " Gorapen hastia *edo* argizagi berri.
☽ " Argizagi lehen laordena.
-

OURTHEKO BESTA ALDAKORRAK :

SETUAJESIMO, *ourtharila* 31^{an}; — HAOSTE, *baranthaila* 17^{an};
— BAZKO, *aphirila* 3^{an}; — ERROGAZIONIAK, *maiatze* 9^{an}, 10^{an}
eta 11^{an}; — SALBATORE, *maiatze* 12^{an}; — PHENTEKOSTE,
maiatze 22^{an}; — BESTABERRI, *arramaiatze* 2^{an}; — ABENTUKO
LEHEN IGANTIA, *azaro* 27^{an}.

LAOR THENPORAK :

Baranthaila 24 ⁿ , 26 ⁿ eta 27 ⁿ .	}	Buruila 21 ⁿ , 23 ⁿ eta 24 ⁿ .
Maiatz 25 ⁿ , 27 ⁿ eta 28 ⁿ .		Abentu 14 ⁿ , 16 ⁿ eta 17 ⁿ .


EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Aorthen ezta izanen bi ekhi ulhuntze baizik, martcho 17^{an},
eta setemer 9^{an}; eztira ikhouziko Uskal Herrian. Aldiz, argizagi
ulhüntzerik batere.







IRAKOURZALIARI



ZIBEROUKO armanaka eginik da bi kartillaz algarreki josirik. Lehena, mehe, mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa da nahidenaren egiteko. Bigerren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., harek ourthe oroz behar du begiratu arrankurareki. Hollak markaturik dutu bost ourthez arround. Laour gerren arraldia igaran ourthian hasirik da.



ERRAN ZAHAR



ADICKIDE eta diharu dianaren bihotza ezta alkhatiaren lotsa.

Adichkide zaharra berriagatik eitz eztezala.

Ahoan min dianari ezta mingar.


Ago kortes guziékin, eta nabasi gutirekin.

Aoher egonez gaizki egiten ihourk ikhas diro.

Ardi bilha hadi, bakia gatik, otsoak jan ezake.

Haro emiaren beha dagoena uda-negietan, eskaz date bere gaizetan.

Negian hotzari, eta udan beroari beldur zaiona, ezta ez zaldun, ez merkhatari houna.



Aski dakik bizitzen balinbadakik.

Bardin da aoher egoitia, eta aoher lan egitia.

Bata ezpada nahi, ezkitakek guduka hi eta ni.

Behar eztena erraiten dianak, entzu diroke nahi
eztiana.

Behiari darraikala doa gaizkintzetara chahala.

Azti bi jin dira goure okholiala, batak du izen zohegi,
bestiak aztura.

Aorkhi guziak du bere khinperra.

Acheria pheredikatzèn ari denian ohart emak hire
olloari.

Belia ikhous daite, chourit eztaite.


Bere egitekoen egiten eztakianak, nekez daidizke
besterenak.

Bere ountsa du uzten, gaizki jarteko, bere hounaz
hiltzera gabe bilaitzen denak.

Besteren dihariaz etchia berritzen dianak, etche za-
harra eta berria dutu bahitzen.

Bestez gaizki mintzo denak, entzun ditzake bere oge-
nak.

Bourla gaichtoa bere sor lekhiala utzuli doa.





OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.




- Ⓐ a. o., 3ⁿ, goizanko 5^{or} eta 56^{min}.
 Ⓑ a. l., 9ⁿ, arratseko 9^{or} eta 19^m.
 Ⓒ a. b., 17ⁿ, arrastiriko 3^{or} eta 56^m.
 Ⓓ l. l., 23ⁿ, arratseko 8^{or} eta 50^m.

BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- Ⓐ a. o., 1ⁿ, arrastiriko 4^{or} eta 42^m.
 Ⓑ a. l., 8ⁿ, goizanko 10^{or} eta 5^m.
 Ⓒ a. b., 16ⁿ, goizanko 11^{or} eta 14^m.
 Ⓓ l. l., 24ⁿ, goizanko 11^{or} eta 18^m.



1	Ostirale.	ZIRKONZISION
2	Neskanegun.	s. Makari.
3	Igante.	sa <i>Jenevieva</i> .
4	Astelehen.	sa Fausta.
5	Asteharte.	sa Amelia.
6	Astizken.	APHARIZIO.
7	Ostegun.	sa Melania.
8	Ostirale.	s. Luzien.
9	Neskanegun.	s. Julien.
10	Igante.	s. <i>Marzien</i> .
11	Astelehen.	s. Teodose.
12	Asteharte.	sa Taziena.
13	Astizken.	J. K. Batheia
14	Ostegun.	s. Ilera
15	Ostirale.	s. Phaole, erm.
16	Neskanegun.	s. Marzel.
17	Igante.	s. <i>Antoni</i> .
18	Astelehen.	J. Petir. Err. Jartia.
19	Asteharte.	s. Kanut.
20	Astizken.	s. Fabien eta Seb.
21	Ostegun.	sa Agnes.
22	Ostirale.	s. Bizente.
23	Neskanegun.	A. B. Ezkontz.
24	Igante.	s. <i>Timote</i> .
25	Astelehen.	J. Phaoler. koub.
26	Asteharte.	s. Polikarpe.
27	Astizken.	s. Johane Kris.
28	Ostegun.	s. Amadeo.
29	Ostirale.	s. Frantzes S.
30	Neskanegun.	sa Martina.
31	Igante.	<i>Setuajesimo</i> .

1	Astelehen.	s. Ignazio.
2	Asteharte.	KHANDERALLU
3	Astizken.	s. Blasi.
4	Ostegun.	sa Jana Val.
5	Ostirale.	sa Agata.
6	Neskanegun.	s. Aman.
7	Igante.	<i>etsajesimo</i> .
8	Astelehen.	s. Johane Mat.
9	Asteharte.	sa Apolina.
10	Astizken.	sa Eskolaztika.
11	Ostegun.	A. B. Lourdako.
12	Ostirale.	s. Tita.
13	Neskanegun.	s. Jilbert.
14	Igante.	<i>Kinkajesimo</i> .
15	Astelehen.	s. Faosti.
16	Asteharte.	sa Juliena.
17	Astizken.	HAOSTE.
18	Ostegun.	s. Flavien.
19	Ostirale.	Elhorr. Khor.
20	Neskanegun.	s. Eucher.
21	Igante.	<i>Gorozumako 1^a</i>
22	Astelehen.	J. Petir. Ant. Jart.
23	Asteharte.	s. Petiri Dam.
24	Astiz. <i>IVTh. B.</i>	s. Modezte.
25	Ostegun.	J. MATHIAS, ap.
26	Ostir. <i>IVTh. B.</i>	s. Dosite.
27	Nesk. <i>IVTh. B.</i>	s. Romano.
28	Igante.	<i>Gorozumako 2^a</i>
29	Astelehen.	s. Rufi.



MARCHOA edo OSTAROA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- ☉ a. o., 2ⁿ, gaiko 2 oren eta 57^m.
- ☽ a. l., 9ⁿ, gaiko oren eta 10^{min}.
- ☿ a. b., 17ⁿ, goizanko 5^{or} eta 48^m.
- ♃ l. l., 24ⁿ, arratseko 9^{or} eta 46^m.
- ♅ a. o., 31ⁿ, eguerdi eta 3^{min}.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☽ a. l., 7ⁿ, arratseko 6^{or} eta 2^m.
- ☿ a. b., 15ⁿ, arratseko 10^{or} eta 2^m.
- ♃ l. l., 23ⁿ, goizanko 5^{or} eta 4^m.
- ☉ a. o., 29ⁿ, arratseko 10^{or} eta 45^m.



1 Asteharte,	s Leon, Baion.	1 Ostirale.	<i>Ostir. saintu.</i>
2 Astizken.	s. Zinplize.	2 Neskanegun.	<i>Nesk. saintu.</i>
3 Ostegun.	sa Kunegonda.	3 Igante.	BAZKO.
4 Ostirale.	J. K. lantza et litz.	4 Astelehen.	s. Isidro, aph.
5 Neskanegun.	s. Luperkule.	5 Asteharte.	s. Bizente F.
6 Igante.	<i>Gorozumako 3^a.</i>	6 Astizken.	s. Zelesti.
7 Astelehen.	s. Tomas Ak.	7 Ostegun.	s. Herman.
8 Asteharte.	s. Johane J.	8 Ostirale.	s. Albert.
9 Astizken.	sa Frantzesa.	9 Neskanegun	s. Akazi.
10 Ostegun.	40 Martirak.	10 Igante. 1.	s. <i>Makari.</i>
11 Ostirale.	Suario sa.	11 Astelehen.	s. Leon hand.
12 Neskanegun.	s. Gregori hand	12 Asteharte.	s. Jules.
13 Igante.	<i>Gorozumako 4^a.</i>	13 Astizken.	sa Ermenejilda.
14 Astelehen.	sa Matilda.	14 Ostegun.	s. Justein.
15 Asteharte.	s Zakaria.	15 Ostirale.	sa Anastazia.
16 Astizken.	s. Ziriaka.	16 Neskanegun.	sa Grazi.
17 Ostegun.	s. Patrik.	17 Igante. 2.	s. <i>Anizet.</i>
18 Ostirale.	J. Gabriel, ark.	18 Astelehen.	s. Elutero.
19 Neskanegun.	s. Jusef.	19 Asteharte.	s. Leon IX.
20 Igante.	PASIONIA.	20 Astizken.	s. Teotimo.
21 Astelehe.	s. Benedit.	21 Ostegun.	s. Anzelmo.
22 Astehartn.	s. Riktruda.	22 Ostirale.	s. Soter eta Kaio.
23 Astizkene	sa Pelajia.	23 Neskanegun.	s. Jorji.
24 Ostegun..	s Agapit.	24 Igante. 3.	s. <i>Zerazi.</i>
25 Ostirale.	A. B. Anontz.	25 Astelehen.	J. MARK, Eb.
26 Neskanegun.	s. Braolio.	26 Asteharte.	s. Kleteta M.
27 Igante.	ERRAMU.	27 Astizken.	sa Zita.
28 Astelehen.	s. Justein.	28 Ostegun.	s. Phaole K.
29 Asteharte.	s. Pastor.	29 Ostirale.	s. Peiriri, m.
30 Astizken.	s. Amadeo.	30 Neskanegun.	sa Katalina.
31 Ostegun.	<i>Osteg. saintu.</i>		



ERREBOLUZIONIA



ERREBOLUZIONIA da hitz bat, erran nahi diana zola zolatik usantchen edo legen edo gobernatzeko mouldiaren khanbiatzia. Dudarik gabe, bazen Frantzian, Erreboluzione handiaren aitzinetik, usantcha eta lege okher hanitch, eta, haien chuchentu nahiz, zutian Louis XVI, Frantziako erregiak, bilerazi deputatiak oro, *États généraux* deithu bilzarre handiala, 1789^{ian} maiatze 5^{ian}. Bena Erreboluzioniak ondoramen gais-toenak izan dutu, zeren, chuchen zirenak ere okherçu eta desegin beittutu, zeren, berheziki, zozietatiaren foundamenak berak, zola zolatik jaozerazi nahi izan beittutu. Zozietatia eztaite ountsa joan, errelijionerik gabe, autoritate azkar bat gabe, familien eta jenten beren zuzenez phaosuki gozatzeko libertatia gabe. Aldiz Erreboluzioniak, Frantzian, nahaskeria handirik erazi du, zeren burutu nahi izan beittutu hirour gaiza: 1^{ik} Errelijioniaren irallzia; 2^{ik} Errege zuzenezkoaren tronotik egoistia; 3^{ik} Familien eta etchalten desegitia eta hountarzunen ooren jabe gobernamentiaren ezartia.

Horiatarik pharte burutu zutian hastetik, denbora baten berere, eta orai indarkatzen da behinere beno azkarkiago gaiza horien osoki eta orozbat burutu beharrez. Zuhaña ezagutzen da bere ekhoitzetarik: ditzagun ikhous, hirour phuntu horietan, zer izan diren Erreboluzioniarenak.

I. — *Errelijioniaren irallzia* aiphu. Araoz ahatze beitzien, edo agian ezpeitzien behinere ikhasi istoria-

ren jakilegoa, hounek erakousten beteizku erreljio-
niaren etsaiak, goiz edo berant, zankhazgoraturik,
beren detsiak burutu ahal izan gabe, Erreboluzio-
neko lege egilek amets egin zien, behar ziela erreli-
jione katolikoa, legen bidez, galerazi Frantzian.
Baranthalla 13^{an}, 1790^{an}, zuzen orenen kountre, lege
bat egin zien, debetatzeko fraider eta serorer boto
egitia, eta aitzinetik egin zutukiennen haots erazteko.
Gero, Aphezak eta Aphezkupiak, espiritualeko gai-
zetan, hala noula themporalekoetan, beren pian
ezari nahiz, *Constitution civile du Clergé* deithu lege
bat egin zien, hartan Elizaren legiak eta zuzenak oro
arnegaturik beitziren. Lege haren arabera; 135
Aphezkupu zirenen ordari, etzien izan behar Frant-
zian 83 baizik; Aphezkupiek izentaturik izan behar
ziren, ez haboro Erregiaz eta Aita Saintiaz, bena botz
emailez, bardin judio eta protestantez; hala hala,
Erretorek ere behar ziren haitaturik izan botzetara.
Lege hori obeditzeko zin egitia manhaturik izan zen
1790^{an} azaro 27^{an}, eta, zortzi egunetan barnen zin
hori egin nahi etzুকien Aphezkupu eta Aphezek,
beren kargiak galdu behar zitien. Ehun eta hogeï
eta hamabost Aphezkupietarik laorek baizik etzien
zin egin eta 60.000 aphezetarik, hamar milaz bestek,
lege bidegabeko horri etzien nahi izan obeditu.
Orano, zin egin zienetarik hanitcheke, beren zinaren
emaitiareki, erreserbu egin zien obeditzen ziela,
konzenziak, Elizakatholikoa kolpatu gabe, ounhesten
ahal zian heñian. Eta ikhousirik Frantziako aphez-
kente haboroa etziela khordoka-erazten ahal, lege
egiletan zen aiphatienetarik batek egin zian aithortze
eder haou: « *Badugu haien sosa, bena berentako
begiratu die beren ouhouria.* » (MIRABEAU.)

Geroztik, jeiki zen persekuzione izigarri bat Frant-
zia guzian; gaizkigile handi eli baten pare, Jesu-Krist
beren Naousia bezala, aphezak hiltzera kondenaturik
izan ziren. Legiaren izenian, setiaturik izan ziren

etchetan, gordagietan, harpetan, oihanetan; bi mila eta berehun bat gillotinatu zutien, beste zounbait mila hilerazi tiroz edo ithoeraziz, edo galeretan, lan borthitzegietan leherreraziz; 28.729 Frantziatik kanpo ezkapi ahal izan ziren, eta bestiak, ahal bezala, han heben, biziaren erriskian, egon ziren gorderik, fededuner gordachkaz Errelijioneko lagungoak emaiten zeitzelarik.

Zina egin zien aphezak, *intrus*-ak, haboro lekhotan, gaizki harturik izan ziren; eta ézten populia nahi joan haier behatzera, haier kofesatzera, ez batheiu, ez ezkontze egineraztera.

Erreboluzioniak, nahiz eta errotik ezaba erazi Errelijione katolikoaren herechala drano, egin zian lege bat ourthen, hilabeten, asten eta egunen beste gisaz markatzeko. Noula Jesu-Kristen sortzetik hounat beita etchekirik ourthen khountia, manhatu zian khoutu houra hasiko zela Errepublikaren lehente Frantzian ezartetik, 1792 setemer 22^{etik}. Hilabete bakhotchakbazutian, hamarna eguneko hirour aste *décadi* deithiak. Igante egunian manhaturik zen, hiltzeko phenaren pian, beste egunez bezala lanian arizia. Saintien izenen lekhotan, emanik ziren egun bakhotchari, edo kabale baten izena, edo belhar batena, edo beste zer nahi gaizarena. Eliza zounbaitetan, tzarkeria ahalkegarrienak eginik izan ziren, hala noula Pariseko Notre Dame Eliza gehienian, noun 1793^{ian} azaro 10^{an}, emazte tzar-bat, ezin erraiten ahal den estatu batetan zena, althariaren gañen, erdi erdian jarririk, Frantziaren gobernazalek orok, batez bestek, eta populu ozte handi batek, adoratu beitzien! Hantik bertan *intrusentako* berentako ere, elizak zerratu zutien Frantzia guzian, edo, zer nahi zerbutchu, bardin arrountenentako, erabilizutien.

Jinko gabe bizitziak ezterio deus hounik ekharri Frantziari, eta, ikhoustiareki noula odolian eta lohi-kerian nahasirik egon den, hamar bat ourthez, Ma-

caulay, istoria egiliak, erran ahal izan du : eztela egundano, munduko beste populien istorian, agitu hañ gaiza itchousirik. Zeren ezi, bethi egia izanen da, hala noula ekhiaren argia galdu ondoan, gai beltzian, gaizak oro ber koloreko ikhouston beitira, hounak eta gaistoak, ederrak eta itchousiak, hala hala, Jinkoaren argia galduz geroztik, ulhunpe da gizonaren enthelegian eta bihotzian, eta ezta haboro han berhezigoarik, ountsaren eta gaizkiaren artian, chuchenaren eta okherraren artian, berthutiaren eta bizioaren artian. Erran gabe doa, zounbat nahi indarkatu zen Erreboluzionia Errelijioniaren kountre, etziala ahal izan Errelijionia galerazi, eta, hamar ourthe gabe, populia aserik, greuturik, ahalketurik Erreboluzioniaren tzarkeriez eta lege itchousiez, arra-utzuli zela, gogo hounez, Errelijioniak jentiari eskentzen detzon sall ezinago ouhouragarri, chuchen eta salbagarri. Jinkoari buhurtziak eztu damurik oren burian ekharri behinere persekutazaler baizik. Hourak, goiz edo berant, markatuki Jinkoak jo dutu, aldiz, haien bitimak, beren sofrimentien heñeko sari batez phakatu dutu. Eta bethi hola izanen da.

II. — *Errege zuzenezkoaren alkhitik egoistiaz aiphu.* Anglaterrako izkiribaño aiphatu batek izkiribatu liburu batetan irakourten da : « Krimo batek ezeztatzen dia bai Erregeren majestatia ? Ordu beretik leze handi, barna beno barnago bat, zabaltzen da eta ungunian direnak oro harat erorten dira. » Erreboluzioniak, zuzen oren kountreko lege baten bidez Frantziako Erregiari lephoa moutzerazten deio, bena Louis XVI^{en} odol tchorta bakhotcha khosteko zaio Frantziari, Frantzesen beren odol uholde bat. Bostpasei ourthetan barnen, Erregeren hilerazteko krimo izigarria, hullan lao miliou Frantzesek phakatu beharko die beren bizia haren espelekutan emanaz. Houna chehetarzunak, *Martyrs et Bourreaux de 1793*, librian irakourten dutgunak :

ERREBOLUZIONIAK HILERAZI DUTIAN FRANTZESEN NOUNBRIA

Frantzian berian, gillotinaz, tiroz, ezpata kolpuz edo ithoeraziz, Erreboluzioniak galerazi dutu urhats orotako jente....	1.638.303
Erreboluzioniaren legiaren bortchaz harerazteko, gerlan edo ospitaletan hil diren soldadoak.....	800.000
Presountegietan, galeretan edo desterrian Erreboluzioniak hilerazi dutu urhats orotako Frantziako jente.....	1.200.000
Kolonietan larru chouriko jentetarik hilerazi dutu..	184 000
Kolonietan hanko bereko jente beltzarik	60.000
Orotan.....	3.882.303

Hirour miliou zortzi chun eta laetan hogei eta bi mila, gizon, emazte, haor, horra zer khoste zaion Frantziari, Erregeren ehaitia. Bestalde eztitake erran ahal, zounbat herri, zounbat jauregi, zounbat etche errerazirik izan ziren. Lyone hirian berian 1793^{ian}, errerazi zutien 1674 etche. Louis XVI^{ena} hileraziz gerroztik, Frantzia egon da, Napoléon lehena jin artino, odolez gose errabiatu bezala ziren gizon elibaten eskupian, hourakere aldika photeretik gillotinala joan beitziren; eta, hamalaor ehun ourthez ukhen zian gobernatzeko moulede bakhotcharen orde, azken mentian, ukhen dutu aldika bai Konsulen, bai Emperadoriaren, bai Erregiaren, bai Errepublikaren legiak.

III. — *Familien eta etchalten eta hountarzunen descigitiaz aiphu.* Erreboluzioniak bere argi eta gidak hartu dutu berheziki *Jean Jacques Rousseau* jakitant tzar baten izkiribietarik eta etsenplietarik. Gizon harek, errelijionia estudiantu zian liburu gaistoetan,


eta bizitzeko konduta aldiz, gazte gaztetik bere enjo-
gidura ororen, plazerez ase artino, satisfatzian. Ha-
ren arabera eztu jentiak eginbiderik batere, zuzen
baizik; hortarik egin zutien *Déclaration des droits de
l'homme et du citoyen* deitzen den Erreboluzioneko
kredoa uduribat, zouñ, Ziberoan, izentatzen ahal gu-
nukian errejent batek, othoitzten lekhutan erraneraz-
ten beitu bere eskolako haorrer. *Rousseau* — en ara-
bera, eztu ihourk ere ukhen behar hountarzun berhezi-
zirik, gaizak oro ororenak dira, eta gobernamentiak
behar dutu oro beretu, zozietate guziari balia ditian.
Rousseauk berak, behin ouhouinkeria bat egin zian
zerbutchari zelarik jaoregi batetan eta nahi gabez
bere buria ogendant ezagutu, akusatu zian eta pre-
son eroin erazi neskato gazte bat, hari ogena emanaz.
Rousseau — en arabera, ezkontze khristiaren le-
khutan, gizonak eta emaztiak alkharreki nahi dieno
bizitzeko eta, noula ere gogoak bouklatzen beittutu,
nahi direnian bestetara joiteko, haizu izan behar
dira; haorrak eztira aitarenak eta amarenak, bena
bai gobernamentiarenak. *Rousseauk* berak, pratikan
ezari zian lege suerte hori, gaizki biziz, lehenik
bere naosi baten emaztiareki, gero ostatu batetako
neskato bateki. Bost haor ukhen zutian, bena, hourak
hazi ezpeitzen arrankura, ezar erazi zutian *Enfants
trouvés* deitzen dienen ospitale elibatetan, eta ez ha-
bora haiez behin ere orhitu. Egun ederrik eguru-
kitzen ahal dutugu Errelijioneko lege saintiak egois-
tera uzten badutugu, zozialisten legen pian jarteko!

Hastetik, etzutian Erreboluzioniak burutu osoki,
mañaten (edo familien), etchalten eta hountarzunen
desegiteko chediak; bena 1789^{ian}, legian ezari zian
Ezkountzia « *kontratu zibil bat* » (ez irakour *merkhatu
bat*) zela. Hirour ourtheren burian 1792 setem. 20^{ian},
ezkountziaren haosteko legia hounhartu zian, zer
nahi arrazou esdeusentako; familiaren izatia errotik
kolpaturik zen.


1789 urrieta 10^{im} abiaturik, ondoko azaroaren 2^{an} burutu zien lege bat, parropietako elizen eta aphez-
kentiaren hountarzunen, gobernamentiari emaiteko,
hitz hounen pian, Gobernamentiak erretor bakhot-
chari, atherbiaz eta baratziaz kanpo, phakatuko
zeiola ourthe oroz gutiena 1200 libera arranda. Gero
beretu zutian orano gobernamentiak, komentien eta
aitounen semen etche, jaoregi, etchalte, fountsak eta
hountarzunak oro, hourak deklaratur *Biens natio-*
naux, eta gisa horrez ouhouinkeria bera zuzen eduki
zien. Berantago, aphezen phakiak berak, bai eta ere
Frantziatik kanpo, Erreboluzioniari ihesi joan ziren
Frantzesen hountarzunak ebatsi zutien, béthi zuzen-
naren itzalian. Nour zen aberastu ordian, populua
othe? Ez populua ez, bena bai kargulant saldo bat,
populia aldiz, zaphaturik, esperekaturik zagon, zerga
zergaren gaña ezin phakatuz. Eia, orai ere komentien
fountsak, hameka aphezkupuen eta zounbait ehun
aphezen phakiak, beretu ondoan, gobernamentiak
laborarien zergak tchipituko dutianez? Sinhesteko,
ikhousi behar da.

Erran horiet urik orotarik ageri da, Erreboluzionia,
hen doian egonez, houn izaten ahal zelarik, muga
gabe gaisto izan dela Frantziarentako, burutu dutian
gaiza gehienetan, eta damu handirik eginen diala
orano Frantziari, uzten balinbadira Gobernamen-
tuko aitzindari, Erreboluzioniaren altheko gizonak.
Eztieia orano berriki erakoutsu, noula nahi dien
erreligionia iralli, Elizaren libertatia zaphatu, gero
haren ezeztatzeko; noula nahi dien, aita eta amen
aitzinetik, haorren naosi jarri, haorak Jinko gabeko
eskoletan, *Rousseau*-en erakaspenen arabera, eraiki-
eraziz; noula diborzaren legiaz, ezkontziaren batar-
zuna eta saintutarzuna galerazi nahi dien; noula
ezten gehiago bakhotcha beriaz buruzagi, governa-
mentiak, ouhouinkeria lege ezari dianaz geroztik
fraiden, seroren eta aphezkupu eta aphezen eretzian?

Egundano, erregerik gaistoeneren denboran, ezta izan Frantziako eta Uskal-Herriko jentia hainbeste zaphaturik, hainbeste bere aitzindarietz trufaturik eta tink edukirik noula orai. *Combes* ministro apostatak dio, bere pheredikietan, populiaren nahia diala egiten, tzarkeria hainbeste legiaren izenian egiten dianian. Nouiz, Uskaldun maitiak, trufa horik sareraziko dutugu eta goure eskietako eta goure bihotzetako khatiak haotseko? Nouiz eta khiristi houn goratik burhagertu beikira, eta nouiz eta ere kargulantez gomendatzen deizkien deputatu, zenatur edo konseller-gei orori botz emaitetik baratuko beikira. Han da giltza, eta ez han baizik.



ZER DABILAN HOR HEBEN



I. — *Frantziako budjeta edo otsoak artzanhor.* — Azken deputatu bozkak izan beno sei aste aitzinetik deputatiek herri orotan aficha erazi zien *M. Caillaux*, ordunko ministroak, pherediku batetan erran ziana 1898 ourthetik eta 1902 ourthiala, budjetak baziala 276 miliouz gañetik jinphide haborokin joanphide beno; ber gaiza ekharten zian « *Journal officiel* » kasetak, 1902^{ian} martcho 23^{an}. Egia othe zena hori? Ez, bena paperrak gezur handi hori barreiatu zian Frantzia guzian eta ondoko egunetan deputatien majoritatia gobernamentiaren aldekoetarik igaran zen. Ourthe baten burian, *M. Antonin Dubost* senadore, nahi bada gorrienerarik batdenak, kargaturik izan denian 1903^{ko} budjetaren adelatziatz, erran du hitzez hitz, bere senadore laguner: « Azken bi ourthetan despendioak izan dira handiago sos sartziak beno 540 miliou eta 195 mila liberaz; haietarik 261 miliou

hamar mila libera 1901^{eko} eta 279 miliou 185 mila libera 1902^{eko}. Ezteia ageri hortik zér esku hounetan den Frantziako diharia eta kasik kasik uduri lukila jinik dela mouda otsoen artzan hor ezarteko?

Gero nour estona, ikhoustez orai diala bost ourthe 103 libera balio zian Frantziako bankako tritiak ezpalinbadu balio orai 96 liberaren ungurunia baizik; nour estona Esparñako kesetarik sosa arrount eraikiten badie (159 miliou 890 mila 700 libera 1903^{ian} berian urrietaren 10^{eniala} artino.) Haregatik Combesek erranen du, setemerez erran dian bezala Tréguieren, Frantziako egitekoak, dihariaz kestione, hanitch ountsa badouazala; eta zounbat hori sinhesten die-nak! Laborari maitiak, eia eia zien egitekoak ountsa douatzanez irabazten beno haboro despéndiatzen duzienian, zorra zorraren gaña egiten duzienian, kredita galtzen edo galdurik ikhousten duzienian. Hortik ageri da zounbat ountsa douatzan Frantziako egitekoak.

II. — *Jaon mera eta konselluko izatia ala khuso izatia eztenez orai bardin.* — Aita eta amak beren haorren beno haboro eztira herriko egitekoetan naousi ez jaon merak ez konsellerak. Khuso elibatez beno haboro eztu haiez khounturik ethekitzen orai Gobernamentiak.

Ditzagun eman egia horren berme bi solaz 1902^{ian} berian agiturik

I^{ik} Gobernamentiaren manuz, Frantziako konselliak oro, fraide eta serora komentu edo eskola ziren herrietan, bildurik izan dira, eta galthehinik izan zaie, eia, komentu eta eskola hourak, nahi zutienez aitzina ere zabalik, ala arrount zerraturik izan litian.

Goure departamentuko herri handi ala tchipietako konseilliek, bi herri tchipikoez bestek orok, eta Frantzia guziko laor phartetarik hirourek, galthatu die fraiden eta serora komentu eta eskolen zabalik

etchekitzia. Zer egin du Gobernamentiak? Oro zerra-erazi dutu, edo zerra-erazi gei. Badira Frantzia guzian 9328 eskola, *konsellien nahiaren kountre* zerraturik; goure departamentian berian badira 180.

II^{ik} Etzien herrier deusere khostatzen fraiden eta seroren eskola etchiak ez eskola egilen phakatzia, eta zuzenki, herrietako jaon mera eta konseillerek etzien nahi herriak, legar berri eta handi eli batez kargaturik izan litian. Zer egin du Gobernamentiak? Eman du prefet orori eskia, *mera eta konseillerek nahi badie eta ez padie, herrien khostuz*, eskola etche berri egiteko, edo zirenen eskola etche zaharren handitzeko.

Zertako dira konseillerak eta merak ez padie eskurik haboro herriaren eta herritarren intresen etchekitzeko? Ezteia egia gobernamentiak khusotako bezala edukitzen dutiala? Eskola etchen phakatziaz beste, behar dirateke orano phakatu, fraide eta seroren ordari Gobernamentiak ezariko dutian errejent eta errejentsak. Eta noula? Gaizo laboraria Gobernamentiaren althe bethi, botza eman diana hire haorren kitorik eskolaturik ukheiteko esperantchan, beharko duk orano hire mousa ountsa ikhertu. Aitzinaturik hizate hanitch, berantago, nouiz eta ere debria beitukek mousan eta haorrek ere debraturik beitutuzkek Jinko gabeko eskolan! Bena ordian nourk duke ogena? Dudarik gabe asto beltchak edo hik! Beste behin gogo emak hobekiago nouru botza emaiten dian.

III. *Eskola dohagnak zer khostatzen diren.* — Alegia kitorik direlako herrietako eskolak, hanitchez lehen beno khostatzenago dira laborarier. Lehen haor bakhotcharentako zortzi libera phaka, eta, haorrek ikhasten zutian jakin beharrenik zutianak eta katichima lehen lehenik, lur lanetan aritzeko aoher diren jakitate suertiak eitzirik; orai, Pariseko esposizione, eta jakintsien bilzarreneko den batek, M. Le Vasseur-ek

gubernamentiak manhaturik, idoki zian khountiaren arabera, batetara ezaririk, alde batetik, herrietako, gubernamentiak phakatzen zutian eskolen, errejent eta errejentsen phakamentiak, eta beste aldetik, eskola haietan ebiltzen ziren haorren nounbria, haor bakhotchak khostatzen da, ourthe bakhotch, Frantziako budjetari, berrogei eta hamar libera. Eta zounbat gaiza batere baliatuko ezpetzaitzo ezteie erakasten! Eskola khiristiak oro zerraturik diratekienian, orai artino gubernamentari, Frantziako legarrari, *deusere khostatzen* etziren eskola haietako haorrek behar dutukie eskola etchiak, errejentak, errejentsak phakatu; eta hoioren orenen phakatzia, orai artino guntian kargez beste, legarretarik eginik izanen da. Zer izanen da legarren emendatze, bortchaz despendio aober hoioren gatik, egin behar dukiena? Ehi da khountiaren egitia. Badira Frantzian miliou eta seiehun mila haor fraiden eta seroren eskoletan zirenak, eta gubernamentukoetarat igaraneraiziko dutienak. Haor bakhotchak khostatzen denaz gañen berrogei eta hamar libera, 1.600.000 khosteko dira *lao etan hogei miliou*. Eztira gutaz aphur trufatzen goratik eta thaigabe gouri errailiak oraiko eskolatzia kitorik dela! Eta gu bethi ariko gireia, gur egiten, eti bethi bai erraiten, holako zozokeriak, aho bethez, bouhatzen deizkien kargulanter?

IV. *Aphezkupien eta aphezzen phakiak*. — Badira Frantzian, oraiko egunian, laoetan hogei bat aphez-kuputarik *hameka* phakia idokirik; *chunkaz* hala hala badira aphezak eta haietarik nounbait *dozena* bat goure Uskal-Herrian berian.

Zer erran zinioie, diharu pherestatu duzienek, zien dihariaren jesailia jin baleikezie erraitera: « Ezpalin badutuzu zoure emaztia eta haorrak gorritz beztitzen eztugu intresik ukhenen. » Horra hatik zer egiten dian orai Gubernamentiak; eztu zuzenik Elizako

gaizetan sartzeko eta aphezen *phakamentia zor du noun ezteion Elizari utzultzen bere hountarzunak.*

Erreboluzioniak berak *beretu* zianian *hountarzun houra*, ezagutu zian *zor zeiola*, ez *soldata* bezala, bena bai *arranda* bezala, zerbait *phakamentu Elizari eta haren ministroer*. Erreboluzioneko gizonak berek, estimatu zien *Elizaren hountarzunak emaiten ziala hirour laou ehun milionen altia mouzkin ourthian*, eta legez ezaririk izan zen, erretor bakhotchak ukhenen ziala ourthe oroz, gutiena *hamabi ehun libera*; soma hori gero *aphalturik* izan da, *bederatzu ehun liberatara*. Erreboluzioniaren ondoko budjetetan, ekharri rik zen *80 milioutara* artino berehun edo hirour ehunen lekhotan, Elizari eta Elizako ministroer *eman behar zen phakamentia*. Orai zertaturik da *phakamentu houra*? *43 milioutara*. Etsenplu hounik emaiten du *Gobernamentiak* sos jesailer, *kuriouski* intresen *phakatze*ko.

V. *Chifru zounbait* : *fraiden eta seroren hountarzunak, eta judioenak*. — Komentien kountreko legia egin zenian, baziren *Frantzian* 160.000 fraide eta serora, eta haien *hountarzunak*, 1895^{ian} *Gobernamentiak* berak here kontrolurrez eta bere *kargulantez* eginerazi zian *estimazioniaren arabera*, *heltzen* ziren bost ehun *milioutara*. Orotara *phartituz* soma hori, fraide eta serora *bakhotchari jiten zeiron* : 3.125 *libera kapital*, edo, *diharu hori plazatuz* : 100 *libera arranda ourthe*ko, *bost* edo *sei* sos eguneko.


Sei *Judiok* *Rothschild* izenekoek *badie bederatzu miliart*, horrek *ekhartan beitu hirouretan hogei eta hamar mila libera arranda oren batentako*.

Bere *grado nourk* *dutie legarrak handi*ago? *Fraidek* eta *serorek*. Haiek *bestek bezala* *phakatzen* *beitutie* : *lurren legarrak*, *etchen legarrak*, *bortha leihoen legarrak*, *mobilier-aren legarrak*, *persounela deithu legarra*, *aizelankaren legarrak*, *komerziorik*

balinbazien, patentak, kontribuzione indirecte deithu legarrak ; eta chungenenaren lekhutan *mainmorte* deithu legarra *hanitchez chungerreña beno goragoa*. Legar horiez *besterik* phakatzen zien : droit d'accroissement deithu legarra, nahi badu zuzen eta bide ororen kountre zen, hartarik soma handirik sartzen beitzen Frantziako duhulatian ; eta badirateke orano errailiak eta haien sinhetszale, gaisto beno astoagoak, fraidek eta seroek etziela legarrik phakatzen ! Jinkoaren justiziak egun batez ezariko dutu bere lekhian gaizak. Ordian eztateke gocho fraide eta serorak kalomniatzen eta persekutatzen dutien aldeko izatia. Ordu deno begiak zabal bitze, utsu direnek.



KATICHIMA USKARAZ



EZTU ourtherik orano Paubeko prefet zenak debekatatu diala erretorer, zuzen itzalik ere gabe, haorrer katichimaren uskaraz ikhas eraztia. Eta haboro dena, merak manhatu dutie bi suprefetek, horri ohartzia eta haier jakin eraztia zoun eta zoun erretorek aitzina emaiten dien uskarari katichimaren egitian. Eztakigu meren bidez aphez hanitch izan direnez salhaturik, batere goure oustez, agerian ja. Batek ere egin zian Dona Johane Lohitzun arrapostubat segur eijerra Baiounako suprefetari. Hiri hartako merian bildurik ziren chorthekako egunian. Suprefeta mera orano gaztebati buruz ungurutzen delarik, derrio : « Esparantcha dit, zoure erretorak katichima uskaraz egiten balinbadu, behar ordian jakineraziko deitadazula ; eta zouri mintzatian, heben diren merer orori mintzo nuzu. » Mera harek ezpeitzen tontoenatarik, hain sarri ihardesten dero :

« Jaon suprefeta, badizu nounbait hogeibat ourthe katichiman enizala izan ; badit orai beste egitekorik, eta segur enuzu katichimalat utzuliko zouri aphezaren salhatzeko eta saltzeko. » Bestiak oro erriz, eta suprefeta bera, beste guk ezagutzen dugun batek beno ezpiritia zabalago beitu, hartan baratu, hitzik haboro katichimaz aiphatu gabe. Mera haboroak ezpadira bi suprefeten gogoetan sarthu, eztaite erran halaber errejentez : hourak dira bazterretan gobernaren salhaterrak. Erretorez mintzatzeko, ezta sobera baizik egia, zounbaitek egiteko hortan arnegatu diela bere boulhasoen mintzo ederra, eta egiten katichima frantzesez. Erran behar da ere khupustu balinbadira zounbait, suprefeten manien aitzinian, beste elibatek nahigo ukhen diela goberniak emaiten zeien phakia galdu, eziez eta katichima frantzesez egin.

Guk orok, Uskaldun girenek, eitziko dugia hola goure mintzo ederra ezabatzeraz ? Bada araoz orano odol inharbat Uskal Herriko semen zañetan. Zer beharda egin ordian, goure mintzoaren eta harekin goure erreligionaren haorren gogoetan begiratzeko ? Zerentako aphezek ez tie orai artekan bezala katichima uskaraz eginen uskalduner ! Beldur dira zounbait bere phakiarentako. Bena nourk bortchatzen dutu katichimaren ikhas eraztera haorrek elizan ? Zerentako ez haorrek bil, edo sakristiñan, edo aphez etchian, edo ezkaratz batetan ere beharbada ? Haorrek eskola badie frantzesearen ikhasteko, eta oraiko errejentak lehenagokoak beno hanitchez abillago beitira, haorrek hanbatenaz hobeki eskolatuko dutie. Bena aphezek katichima egin ezen uskaraz, edo elizan, ezpadira deusen ere beldur, edo beste zerbait lekhituan.

Hori aphezentako. Bena elizate aski uskararen irañerazteko, haorrek ikhaz ezen katichima herriko mintzoan. Eskolatik kanpo mintza ditian ahalaz uskaraz ; aita amak bere haorreki eta beraien artian

halaber. Erakoutsij behar dienen urhatsian direnek, gochoreki uskaraz mintza ditian ahalik eta ardurena, orotan gainti, uskaldunak berak direnian. Khanta uskaraz; khantore uskarak ikhas eraz gazter eta bazter orotan barreia; elizan othoitzak erran uskal librian, goiz arratseko othoitziak uskaraz erran. Nouizian behin houn dateke ere han edo heben phastalbat eman dezen : hitz gutiz ahal oroz uskararen irañ eraz dirokien guzien althe jar gitian. Oro hortarik ari bagira, nour bere urhatsian, Maoleko suprefetaren arrasemek entzunen die orano uskaraz mintzaten. Buhurt gitian arren oro uskara galerazi nahi diener.



LABORANTCHAZ

I. — Uztak 1903^{an}.

BHANBERA arraberrituz geroztik, zer egin die goure deputatu maitiek laborantcharen hounetan ? Fraidiak eta serorak ziren lekhietarik haboroak igorri. Errepublikak etzirokian haboro irañ, eitzi balutie hourak bere komentietan eta eskoletan. Ezta orano hatsarreat baizik; gero ehi agertuko da zer hounki eginen dian Frantziari fraiden kontreko legiak, eta jadanik ezagutzen die komentien ungurunetan bizi ziren laborariak egarten dien galtze handia. Badakigu zer heñetan ziren joanden ourthien lurlanetarik bizitzekoa irabazten dieenek. Ardou egiliak miserian, ez ardou eskaz eginik, bena sobera, hatia ezin salduz. Aorthen beste marraskarik entzunen dugu; bena erraiten ahal da orai danik ardou dienek hobeki ountsaz ere salduko dutiela. Eztira

halere goberniaz kountent *bouilleurs de cru* legia delakoz. Lege horrek ez dutu lehen bezain haizu eizten aigardent egitera. Orotan botigoa edo *syndicat* egiten die laborariek eta erran daite ezte la chokhorik Frantzian noun ezten zerbait gisatako botigoabat. Botigoa hoiek die orano laboraria laguntzen egitekoetan diren okherruner buru egitera. Ountsa beno hobe lizate harentako den gutieneko legar tchipitzia; bena ezte esparantcha handirik ukhen behar: aitezitik, legarrak emendatu nahiz ari dira gobernazaliak, ezpadakie chuchen orano zouin burutarik has. Bada ere lege geibat algarren arteko sos laguntzak (*crédit agricole mutuel* direnak) zinez inkaratzen beittutu daigun ourthe ko budjetian. Balinba ezte deputatiek baia emanen lege galgarri horri.

Joaiten ari den ourthe hountan ogi uzta ederra bildu die. Ipharralteko eretzetan beldur izan ziren ourthe hatsarrian kharrou berantek erre beitzien hanitch alhorretan lanthare gaztia; bena baratu direnak ezinago ountsa arpatu dira. *Bulletin des Halles* den gasetak dioanaz izan da Frantzia orotan 126 miliou 256 mila ogi zaku, bi miliou azken ourthian beno haboro. Prefeten bidez jakin berriek gorago edukiten die aorthenko uzta; ezi gobernariak dio 128 miliou eta 705 ogi zaku bildu diela, phezutan emaiten beittie 99 miliou eta 588 mila kintale. Zounbaitek dioie eztiela eraiki 124 miliou eterdi zaku baizik. Bena zer nahi gisaz herriko beharrunen doia balizate kalitatia orotan bardin houn izan baliz. Ezte orano horrez deusere chuchen erran: ezi ogiak haro boustiareki sarthu edo moundolletan athetu dutie. Geroan agertuko da zer datekian ogi haien balia. Ezta arren ogi handirik sarthuko atze herrietarik, bihia houn agitzen bada; ogi zahar ountsatto baratzen da orano eta dena hanitch houn. Beste eretzetako uztak oro boti ezartez, mundu orotako errekoilta usatiaren petik da 24 miliou eterdi zakuz.

Olho uzta ederra bazen, bena haroa ez althe ebakiteko phuntian, eta hanitch lekhutan burnatu dira. Baratuko da halere beharrunen doia. Garagarraz berhoula erran daite. Sekale izan da laorden baten heña aitzineko ourthian beno haboro.

Betarraba sukredunak eijerki eman du bena gutiago eremu bazen ereñik beste ourthez beno; eta geroago eta gutiago eginen die lege berria delakoz. Lege houra zeno ipharralteko laborariak mouzkin ederrik idokitzen zien lanthare hortarik. Orai herenaz goiti tchipitu die sukriaren gañeko thalla. Gutiago mouzkin emanen beitu betarraba sukredun egi-tiak, bortchaz beste zerbait asmatuko die araoz aiphatu laborariak.

Lur sagar bazen eta ederrik; bena udazkeneko haro gaichtoak hiroterazi dutu gune frankotan za khoetarano. Eretze haietan gutiago sagar izanda eta denak chehe baratu.

Belhar izan da, eta orotan bildu die haro hounarekin. Arradall bazen ere, bena haroa eztu hanitch lekhutan althe ukhen. Aitzineko ourthetan izan beitzen bazka franko kabale haboro ere alhatu die bazterretan. Halere okhinialako kabalia ountsa saltzen da.

Zer dateke aorthenko ardoua? Zouin lekhutan haroa eder eta bero izan da. Bena etzen orotan hala. Frantzia orotan kasik uda ekhigabe izan beita, mahats guti bildu die, eta ardoua arteko dateke, eta ez luzaz begiratzeko houn. Dena khario phakatu beharko da. Jadanik prezioak goraturik ziren, orai jakinez geroz noulako bilhatu den errekoilta, hamargerrenbatez gorentu tie berriz.

Ziberouko uzten berriak. Ourthe hounen abioa ezinago houn zen. Bena maiatzian egin zutian kharrou borthitz elibat, aihenaren eta zuhaintze frutadunen ogen handitan. Gero agorrilan idorte luzebatek bortchatu zutian uzta guziak, eta berheziki arthoak. Har-

gatik hebenko laborariak eñran eziroke 1903 ourthe gaichto bat izan dela harentako.

Ogi izan da hanitch orotan eta orotan buriak phezu. Artho ezta izan ihoun ere usatu bezain beste, bena hartarik ere eijerki eraiki die aphalunetan; eta larrazkenian haroa ezinago eder izan beitzen, bazter orotan ountsa zorhitu bihia. Lursagarrak eman du ederki, ilharrak ere bai, eta bai bata, bai bestia, begiratzeko houn dira.

Fruta guti, bestetan bezala; intzaorrik batere ez, gerezi eta sagar doidoia tchestatzekoa. Gaztaña, zi eta ezkur haboro izanda; bena hetarik ere, salbu menturaz ezkurra, ez usatia.

Mahats sekula beno haboro abiatu zen, bena beadatse urhentzeko hotzek chahu galerazi zien aphalunetan, gorenentan ja, pharterik handiena baratu zen, eta Lekhu eritarzunak ezpeitu jo beste ourthez bezala, eta ountsa hountu beita, han aorthen ardou hounik eginen da. Belhar eta arradall aphurto izan da bena dena hanitch houn sarthu da. Bazkagiak ere larrazkeneko haro hounak ountsa erabili dutu, eta kabaliak sekula beno hobeki saltzen beitira eztu geroaz lotsatzeko laborariak. Legarrak ezpalira hain gora, eta berak bizitzia eta beztitzia chuhurkiago eroan balitza, ezugu ouste balizatekian goure laborariak bezañ ousik.

II. — Laborarien indar handiaz, nahi balie ororek bat egin.

Behin beno haborotan, mintzatu gira Armanak Uskaran *Syndicats*, *Assurances mutuelles*, *Caisses rurales* deithu biltzarrez, haien bidez, laborariak abantalla handiak ukhen beilitioie, bai beren mouzkinen emendatzeko, bai suiaz etchetan, edo uzurritiaz kabaletan, jiten diren damien bardinzeko, bai, laborantchako beharrunen arao, dihariaren bethi eskietan ukheiteko.

Gaiza horik zounbat houn diren erakousteko, nahi dugu zerbait chehetarzun eman aorthen ere. Chehetarzun hourak idokiko dutugu Beljikako laborariak berek esprabi eta egun oroz borogatzen dutien abantalletarik.

Erresouma hartan, orai, laborariak egiten die hanitchez ere lehen beno mouzkin gehiago, bi arrazogatik : lehena, beren intresak batetara, boti bezala, ezari dutielakotz ; bigerrena, beren botzak erreligionariaren eta lege chuchenen aldekoer eman dutielakotz.

Bost miliou eta erdi arimak egiten die Beljikako jentekentia oro ; haietan hirour phartetarik biga nounbait laborariak dira. Ezagutu die, algargana juntatuz, zer indar handia ukheiten ahal zien ; hartakoz ezari dutie beren arteko biltzarre gorago, haste hastian, aiphatzen dutugunak, eta orai badutie laborariak, erresouma tchipi hartan, 780 botigoa erospenen ountsa eta merke, saltzapenen aldiz khario, egiteko ; 286 *caisses rurales* deithu diharu phestatzeko zozietate elibat sos beharrunia deneko ; 729 kobalen hiltziaren kountreko asurantzaz ; 459 gaznategi edo gazna eginzia, nourat juntatzen beitie ungunetako eznia oro.

Orai diala hogeï ourthe, ezin haboro zaphaturik beitzen Beljikako populia, legar handi eli batez eta erreligionariaren kountreko lege elibatez, laborariak beren indarra borogaturik, bat egin zien, goure Frantziako oraiko ministro eta deputatu hoik uduri zien elibaten botzketan egoisteko, eta haien ordari, geroztik bethi izentatu dutie erreligionariaren eta laborantcharen intresak sustengatzen dutien gizon chuchenak.

Gobernamentiak bere aldetik hirour gisaz lagungoa egiten dere laborariak : 1^{ik} laborantchako eskola berhezien bidez ; 2^{ik} hounhartuz, eta bere ahalaz hedatuz erresouma guzian, laborariaren arteko biltzarre suertiak ; 3^{ik} biltzarre haietako phartelianter heltura eginez, berheziki, laborantchako tresna eta mekani-

ken bost phartetarik batez merkiago ukhen-erazteko.

Laborantchako *lao eskola* berhezi gobernamentiak ezari dutu eta phakatzen dutu, nahi dianak nahi dian heñeko jakitatia ukhen dezan laborantchako gaizetan : 1^a *Institut d'enseignement agricole supérieur* ; 2^a *Ecoles moyennes pratiques d'horticulture et d'agriculture* ; 3^a *Cours d'adultes sur l'agriculture* ; 4^a *Cours élémentaire d'enseignement agricole*. Lao eskola suerte horiez besterik badira orano : *écoles ménagères* deithiak zouñtan neskatilek ikhasten beitutie bai etchen barnentako, bai poaillen edo borthakoen edo erlen hazteko eta eraikitoko, bai laborantchako lanetan gizonari zor dien lagungoen emaiteko, jakin behar dutienak oro ; *écoles volantes de laiterie*, gazna egiten erakasteko eskola elibat hirour hilabetez, ourthe oroz, gune batetan edo bestian emanik direnak, gaznak ahal bezañ houn eginez ahal bezañ khario sal ahal ditzen.

Zer khanbio hogeï ourthe hountan borogutzen die Belgikako laborariek, behin, orok bat eginik, beren botzak alde hounialat emaiten hasiz geroztik, bethi ber aldialat eman dutielakotz ?

1^{ik} Ezta haboro igaraiten legerik ez errelijioniaren kountre, ez laborantcharen kountre, ez despendio aoherrik egiteko, ez legarren emendatzeko.

2^{ik} Berrogei ithegun, lurrek, laborantchako eskolen bidez, beste gisa batetara lanthurik direlarik, emaiten die ourthian *Bi mila eta bost ehun libera mouzkin lehen beno haboro*.

Laborari Uskaldunak, horra zer indarra gobernamentiaren eretzian, eta, zien zorthiaren hobetzeko zer abantallak, ukhen ahal zintioien, nahi bazunie Belgikako laborariek bezala egin !

III. — Fruten luzaz irañeraztiz.

Ourthe oroz badira errailiak : « Aorthen eztira frutak begiraten berhala gastatzen dira. » Mousde

Ouvray, hortan gañen ountsa enthelegatzen den aphezak, emaiten du arrazoa zeren gatik frutak bertan igaraitenbeitira. Hori jiten da eztirelakoz habo-roetan harturik behar diren bide suertiak.

Alde batetik badira airian milakaz ihize ezinago tchipiñi, goure begiek ikhousten ahal eztutien elibat, frutategietan sartzen direnak; beste aldetik, hanitch fruta ichoustian gastatzen dira eta haietarik sortzen dira nounbre handian beste ihize elibat eta ustelduraren azi gaisto elibat. Hartakoz behar da frutute-giko airia sanotu, ihize tchipi hourak galeraziz, sublimé corrosif, acide phénique eta lysol deithu hour borthitzekila.

Behar dira orano arraberritu paper edo lasto edo zer ere zerbutchatu beita fruten goititzeko edo thapatzeko. Ezta behar ezari frutategian fruta sanorik baizik; eskuz, ekhitara, egun eder batez bildurik izan direnak baizik. Kasu egin behar da ere haien eramaitiari fruta tegilat; ezi fruta bat den gutiena makaturik bada ezta houn begiratzeko.

Chehetarzun den chipienak badu bere haraintiunia. Behar da fruta bildu airia sanoenik den tenorian, erran nahi beita, ez behinere hamar edo hameka orenak beno goizago eta lao orenak beno berantago. Orozbat frutiak goititu beno lehen, behar die izan ountsa idor, batere umitarzunaren herecharik gabe. Behar da frutategiari ardura so egin eta hantik idoki fruta gastatzen abiatia oro, khantukoak gasta-craz eztitzan. Ezi, erran zaharra: « Nourekilan ebiltan hizan erran izadak eta erranen deiat zer hizen. » egia da jenten bezal, frutentako Sagar gastatu bat uzten balinbada besten artian, athia oro gastaeraziko du.

Arduran ezte behinere, frutek eta berheziki pera edo udaria deithurik direnek, athian ezaririk izan behar. Bena hatik ourthe hounetan, frututegia oro betherik denian, sagarrak hanitch ountsa egoiten dira laston gañen, kondizionereki eztirela ezariko hirour pallata beno gehiago alkharretan gañen eta airia orotan paseiatuko ahal izanen dela.

ISTORIA ETA ERASI

ALEGIAKO *istoria bat sobera egia dena!* — Baratu dut egun hoietan laborari bat hanitch chuchena, aita familiakoa, hamar bat haor badutiana, eta erran deiot : « Bettan, zounbat behi tuk ? » Begi handi eli bateki sogin deit eta erran : « Zounbat behi dudana? Hamar bat buru baditit eta zoun ederrago. » — « Zer emaiten dek jatera ? » — « Zer ? eta sasao noulako den, batian belhar, bestian lasto, bestian nabo, eia noula den. » — « Eta manhatzen balinbadeiek prefetaren izenian, nabo baizik ez emaitia ? » — « Manhatzen ? Nourk ? Zer zuzenez ? Eniza othe ni ene behien naousi nahi dudana bezala haien hazteko ? Ah ! nahi nikezu ikhousi prefeta edo besterik ene egitekoetan sudurraren sartzen ! Bertan haren bizkar zolak balakikezu ene eskalanpou handien tatcheten berri. » — « Errak Bettan, baduk bohor bat ? » — « Bai eta podra eder bateki orano. » — « Eta podra harez zer egin gei duk ? — « Ountsa hazi, ountsa hezi eta gero saldu. » — « Eta nourbait jin baleikek prefetaren izenian erraitera : « Ez takik batere podra hazten ez hezten », eta eraman nahi baleikek podra ? — « Bai huchtu Pierrot ! eni, ene podra eraman beno lehen, burduñ sarde bateki, beste zoun nahi ouhouñ bati bezala, tripa iraor nikiozu, holako mezulerari ! » — « Eta erran deiot orano Bettani : « — Errak eta, suertez, bahukia borthakorik ? » — « Bai segurki beitut, salburik eta zoure errespetia, bi ourde gizentu eta tcherri-ama bat hamabi tcherri-humeki. » — « Eta astorik, zakhurrik, oillorik baduka batere ? » — « Orotarik badit, jaona. » — « Eta zer emaiten duk jatera ourder eta tcherrier ? » — « Nahi dudana. » — « As-

toari? » — « Nahi dudana. » — « Zakhurrari? » — « Nahi dudana. » — « Oilloer? » — « Nahi dudana; eztreia eniak othe, nahi dutudan bezala hazteko? » — « Eta hire hamar haorak aldiz, noula eraikiten tuk, zer eskola emaiten dek? Ez othe deia prefeta naosi hire haorren errelijionerik gabe eskola-erazteko? Eta hatik hiriak dutuk haorak, hire astoa, hire podra, hire zakhurra, hire borthakoak, hire behiak beno hobekiago, hire odoletik beitira, eta, orai prefetak, gobernamentiak, badik esku haboro hik beno hire haorren eraikiteko! Hire aberen beno gutiago naوسي hiz hire haorren, ezteia egia hori? — Eta gaizo Bettanek buria aphaltu du eta bi nigar erori zaitzo machelak behera. Orai sinhesten du zer kabasturia ezari dian bere buriari, botzketan bethi gobernamentaren aldeko gizoner botza eman beitu.

Pheredikagiatik behin, aphez batek erran zian baizik eta ere Salbazaliak aldi batez bost jente hazi zutiala bost mila ogiekin. Mezatik landan giltzañak erran zeron: « Jaona erran duzu goure Salbazaliak bost jente hazi zutiala bost mila ogiekin. Zer mirakullia! Nik ere beste hainbeste eginen nizun. » Aphezak etzeron ihardetsi batere. Bena ondoko iganteko pheredikian berriz aiphatu zian mirakulliaz mintzoden ebanjelioa, eta lehen aldian ichoustian gaichki khountatu ziana, eta behar bezala erran Salbazaliak bost mila jente bost ogieki hazi zutiala. Pherediku ondoan gero erran zeron giltzañari: « Errak, houu Pette, hik ere hoi eginen hiana? » Bestiak hain zalhe: « Bai, Jaona, bai, igaran igantian baratu ogi ondarreki. »

Gizon batek gai batez amets egin zian jan ziala ar-raotzebat gordinik, eta joan zen azti bati galthatzera, eia amets harek zer zedukan. Aztiak erran zeron ar-raotze chourinkoaren jatiak erran nahi ziala laster

zilhar ounsatto jinen zerola, gorrinkoak aldiz urhe ere ukhenen ziala. Eta hala agitu zen. Hantik denbora bouzibaten burian amets egiliak ukhen zian jitebat beitzutian zilhar eta urhe, bietarik. Joan zen berhala aztiari bere ezagutzaren egitera eta eman zeron zilhar phezabat. Ez peitzeron dudagabe aski hori, aztiak borthala laguntziareki erran zeron: « Errak eta eztuka arren deusere emaiten gorrinkoarentako? »

Bestorduz basa, bazter batetako janartorbati jin zeitzon lagun zounbait eguerdi irian, gosiak harturik. Harek ederki hounki jin egin zeien, eta alegia egin zian igorten zutiala bi gelhariak bata zederriala, bestia aldiz ollaotegiala. Berak aldiz hartu zian sakramentien emaiteko behar den elizako arropa eta librubat eskian etcherik jalkhitzera abiatu zen: « Bena, janartora, nourat zoaza hola? » deroie galthatzen barazkalzalek. Eta harek: « Ez hurrun ez, berhala ziekin uzu. Beitugu herrian gizon uzurridunbat, banoazie bazkal arte hountan, haren kobesatzera. » Eta horren erraitiareki kanpoa hartu zian. Bestek ordian, berri horren entzutiak berak harri erazirik, zalhe hantik kabara hountu zien, uduri eta uzurria aztaler etchekara ziela.





MAIATZA edo EPHAILA

Eg. luzatzen dira oren eta laordenez




- ☾ a.l.. 7ⁿ, eguerditan.
 ● a. b. , 15ⁿ, goizanko 11^{or} eta 7^{min}.
 ☽ l. l. , 22ⁿ, goizanko 10^{or} eta 28^{min}.
 ☿ a. o. , 29ⁿ, goizanko 9^{or} eta 4^{min}.

ARRAMAIATZA edo BAGILA

Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22^a drano.



- ☾ a.l.. 6ⁿ, goizanko 6^{or} eta 2^{min}.
 ● a. b. , 13ⁿ, arratseko 9^{or} eta 19^{min}.
 ☽ l. l. , 20ⁿ, arrastiriko 3^{or} eta 20^{min}.
 ☿ a. o. , 27ⁿ, arratseko 8^{or} eta 32^{min}.



- | | | |
|----|-------------------|----------------------------|
| 1 | Igante. 4. | J. Filipæ et Jakobe. |
| 2 | Astelehen. | s. Atanasi. |
| 3 | Asteharte. | D ^{na} Khur utze. |
| 4 | Astizken. | s ^a Monika. |
| 5 | O. tegun. | s. Pio V. |
| 6 | Ostirale. | s. Johane Eb B L. |
| 7 | Neskanegun. | s. Stanislaz. |
| 8 | Igante. 5. | J. Migel. agert. |
| 9 | Astelehen. | s. Gregori. Na. |
| 10 | Asteharte. | s. Antonein. |
| 11 | Astizken. | s. Orens. |
| 12 | Ostegun. | SALBATORE |
| 13 | Ostirale. | s. Jenio. |
| 14 | Neskanegun. | Johane Sala. |
| 15 | Igante. | s. Eulrope. |
| 16 | Astelehen. | s. Johane Nep. |
| 17 | Asteharte. | s. Paskal. |
| 18 | Astizken. | s. Venanzio. |
| 19 | Ostegun. | s ^a Pudenziena. |
| 20 | Ostirale. | s. Bernardein. |
| 21 | Neskanegun. | s. Petiri Zel. |
| 22 | Igante. | PHENTEKOSTE. |
| 23 | Astelehen. | s ^a Kiteria. |
| 24 | Asteharte. | A. B. Lagunz. |
| 25 | Astiz. IVTb.B. | s. Gregori VII. |
| 26 | Ostegun. | s. Filipe Neri |
| 27 | Ostir. IVTb.B. | s ^a M. Mad. P. |
| 28 | Nesk. IVTb.B. | s. Agosti. |
| 29 | Igante. 1. | TRINITATE. |
| 30 | Astelehen. | s. Felis. |
| 31 | Asteharte. | s ^a Angela. |

- | | | |
|----|-------------------|---------------------------|
| 1 | Astizken. | s. Kler. |
| 2 | Ostegun. | BESTABERRI. |
| 3 | Ostirale. | s ^a Klotilda. |
| 4 | Neskanegun. | s. Frantzes K. |
| 5 | Igante. 2. | s. Bonifazi. |
| 6 | Astelehen. | s. Norbert. |
| 7 | Asteharte. | s. Majan. |
| 8 | Astizken. | s. Medart. |
| 9 | Ostegun. | s ^a Prima. |
| 10 | Ostirale. | J. BIHOTZ S. |
| 11 | Neskanegun. | J. BARNABE, a. |
| 12 | Igante. 3. | s. Johane F. |
| 13 | Astelehen. | s. Antoni, P. |
| 14 | Asteharte. | s. Basile. |
| 15 | Astizken. | s ^a Jermena. |
| 16 | Ostegun. | s. Frantzes R. |
| 17 | Ostirale. | s. Avit. |
| 18 | Neskanegun. | s ^a Marina. |
| 19 | Igante. 4. | s. Gervasi et P. |
| 20 | Astelehen. | s ^a Juliëna F. |
| 21 | Asteharte. | s. Louis Gonz. |
| 22 | Astizken. | s. Paolein. |
| 23 | Ostegun. | s. Eusebio. |
| 24 | Ostirale. | J. JOHANE BA. |
| 25 | Neskanegun. | s ^a Eurosia. |
| 26 | Igante. 5. | s. Johane et P. |
| 27 | Astelehen. | s. Prosper. |
| 28 | Asteharte. | s. Irene. |
| 29 | Astizken. | J. PETIRI et P. |
| 30 | Ostegun. | J. Paoler. orh. |



UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1^{ez}.


- ☿ *a. l.*, 5ⁿ, arratseko 11^{or} eta 33^m.
 ♀ *a. b.*, 13ⁿ, goizanko 3^{or} eta 36^m.
 ☿ *l. l.*, 19ⁿ, arratseko 8^{or} eta 58^m.
 ☿ *a. o.*, 27ⁿ, goizanko 9^{or} eta 51^m.

AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2



- ☿ *a. l.*, 4ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 12^m.
 ♀ *a. b.*, 11ⁿ, arrastiriko or. eta 7^m.
 ☿ *l. l.*, 18ⁿ, goizanko 4^{or} eta 36^m.
 ☿ *a. o.*, 26ⁿ, gaiko or. eta 11^m.



- | | | |
|----|--------------------|-------------------|
| 1 | Ostirale. | s. Tierri. |
| 2 | Neskanegun. | A. B. BISITAZ. |
| 3 | Igante. 6. | J. Odol. Prez. |
| 4 | Astelehen. | s. Léon II. |
| 5 | Asteharte. | s. Zirile. |
| 6 | Astizken. | s. Frankile. |
| 7 | Ostegun. | s. Marzial. |
| 8 | Ostirale. | sa Beronika. |
| 9 | Neskanegun. | sa Elisabet, P. |
| 10 | Igante. 7. | ZAZPIANAIEM. |
| 11 | Astelehen | s. Pio. |
| 12 | Asteharte. | s. Johane G. |
| 13 | Astizken. | s. Anaklet. |
| 14 | Ostegun. | s. Bonaventura |
| 15 | Ostirale. | s. Henrik. |
| 16 | Neskanegun. | A. B. Karmel. |
| 17 | Igante. 8. | s. Aletsis. |
| 18 | Astelehen. | s. Kamille. |
| 19 | Asteharte. | s. Bizente Paolo. |
| 20 | Astizken. | s. Filibert. |
| 21 | Ostegun. | sa Pratseda. |
| 22 | Ostirale. | sa M. Madalena. |
| 23 | Neskanegun. | s. Apolinari. |
| 24 | Igante. 9. | sa Kristina. |
| 25 | Astelehen. | J. JAKOBE, ap. |
| 26 | Asteharte. | sa Agna. |
| 27 | Astizken. | s. Galatori. |
| 28 | Ostegun. | s. Nazari et Z. |
| 29 | Ostirale. | sa Marta. |
| 30 | Neskanegun. | s. Abdon. |
| 31 | Igante. 10. | s. Ignazio, L. |

- | | | |
|----|--------------------|------------------|
| 1 | Astelehen. | J. Petiri kat. |
| 2 | Asteharte. | s. Eztebe, err. |
| 3 | Astizken. | J. Ezteb. edir. |
| 4 | Ostegun. | s. Dominiche. |
| 5 | Ostirale. | A. B. Elhurr. |
| 6 | Neskanegun. | J. K. Transfig. |
| 7 | Igante. 11. | s. Xajetan. |
| 8 | Astelehen. | s. Ziriako. |
| 9 | Asteharte. | s. Jermein. |
| 10 | Astizken. | s. Laoretz, m. |
| 11 | Ostegun. | s. Tiburze. |
| 12 | Ostirale. | sa Klara. |
| 13 | Neskanegun. | sa Radegonda. |
| 14 | Igante. 12. | s. Eusebio. |
| 15 | Astelehen. | A. B. ZELIALAT. |
| 16 | Asteharte. | s. Rok. |
| 17 | Astizken. | sa Emilia. |
| 18 | Ostegun. | sa Elena. |
| 19 | Ostirale | sa Filomena. |
| 20 | Neskanegun. | s. Bernat. |
| 21 | Igante. 13. | s. Julien, Lesk. |
| 22 | Astelehen. | s. Ipolita. |
| 23 | Asteharte. | s. Filipe Ben. |
| 24 | Astizken. | J. BARROL, ap. |
| 25 | Ostegun. | s. Louis, err. |
| 26 | Ostirale. | s. Filibert. |
| 27 | Neskanegun. | s. Jusef Kal. |
| 28 | Igante. 14. | A. B. Bibotz s. |
| 29 | Astelehen. | J. Joh. Lephom. |
| 30 | Asteharte. | sa Rosa Lima. |
| 31 | Astizken. | s. Erremoun. |



BURUIA edo SETEMER

Eg. llaburtzen dira or. 1 eta 3/4 ez.




- ☿ a. l., 3ⁿ, goizanko 3^{or} eta 8^m.
- ☼ a. b., 9ⁿ, arratseko 8^{or} eta 5 2^m.
- ♃ l. l., 16ⁿ, arrastiriko 3^{or} eta 2 2^m.
- ♅ a. o., 24ⁿ, arrastiriko 5^{or} eta 5 9^m.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren 1 eta eundiz.



- ☿ a. l., 3ⁿ, arrastiriko 2^{or} etan.
- ☼ a. b., 9ⁿ, goizanko 5^{or} eta 3 4^m.
- ♃ l. l., 16ⁿ, goizanko, 6^{or} eta 3^m.
- ♅ a. o., 24ⁿ, goizanko, 11^{or} eta 5^m.
- ♁ a. l., 31ⁿ, arratseko, 11^{or} eta 2 2^m.



- 1 Ostegun. s. Jiles.
- 2 Ostirale. D. Justi.
- 3 Neskanegun. s. Lizier.
- 4 **Igante.** 15. s^a Franz. Ch.
- 5 Astelehen. s. Laorenz J.
- 6 Asteharte. s. Onesiforo.
- 7 Astizken. s. Zebero.
- 8 Ostegun. A. B. SORTZIA.
- 9 Ostirale. s. Omer.
- 10 Neskanegun. s^a Pulcheria.
- 11 **Igante.** 16. A. B. Izen S.
- 12 Astelehen. s. Gi.
- 13 Asteharte. s. Ujenia.
- 14 Astizken. D^a Khurutze.
- 15 Ostegun. s. Nikomede.
- 16 Ostirale. s. Ziprien.
- 17 Neskanegun. s. Frantz. Z.
- 18 **Igante.** 17. A. B. Dolor.
- 19 Astelehen. s. Janvier.
- 20 Asteharte. s. Eustache.
- 21 Astiz. IVTh. B. J. MATHIU, Ap.
- 22 Ostegun. S. Maor.
- 23 Ostir. IVTh. B. s^a Tekla.
- 24 Nesk. IVTh. B. A. B. Librazalia
- 25 **Igante.** 18. s. Aostinde.
- 26 Astelehen. s. Tomas Vil.
- 27 Asteharte. s. Kosma et D.
- 28 Astizken. s. Faoste.
- 29 Ostegun. J. MIGEL, ark.
- 30 Ostirale. s. Jeronimo.

- 1 Neskanegun. s. Remi.
- 2 **Igante.** 19. ARRUSARIOA.
- 3 Astelehen. Ainguru Beg.
- 4 Asteharte. s Frantzes, As
- 5 Astizker. s. Venzeslaz.
- 6 Ostegun. s. Bruno.
- 7 Ostirale. s^a Fide.
- 8 Neskanegun. s^a Brijita.
- 9 **Igante.** 20. s. Denis.
- 10 Astelehen. s. Frantzes B.
- 11 Asteharte. s^a Sabina.
- 12 Astizken. s^a Daonina.
- 13 Ostegun. s. Edouar.
- 14 Ostirale. s. Kalista.
- 15 Neskanegun. s^a Teresa.
- 16 **Igante.** 21. A. B. Gambit.
- 17 Astelehen. s^a Edvijs.
- 18 Asteharte. J. LUK, Eb.
- 19 Astizken. s. Grat. Ol.
- 20 Ostegun. s. Johane K.
- 21 Ostirale. s^a Ursula.
- 22 Neskanegun. s. Petiri. Alk.
- 23 **Igante.** 22. A. B. Patron.
- 24 Astelehen. s. Rafael, ark.
- 25 Asteharte. s. Krespi.
- 26 Astizken. s. Evarista.
- 27 Ostegun. s. Fronton.
- 28 Ostirale. J. SIMOUN, ap.
- 29 Neskanegun. s^a Eusebia.
- 30 **Igante.** 23. s. Kazien.
- 31 Astelehen. s. Zirizio.



AZAROA edo GOROTZILA

Egunak llaburtzen dira orenez.




- ⊙ a. b., 7ⁿ, arrastiriko 3^{or} eta 46^m.
- Ⓜ a. l., 15ⁿ, gaiherdi eta 45^m.
- Ⓜ a. o., 23ⁿ, goizanko 3^{or} eta 21^m.
- Ⓜ l. l., 30ⁿ, goizanko 7^{or} eta 47^m.

ABENTIA edo NEGILA

Eg. llaburtzen dira 27^{min}, 22^{no}

- ⊙ a. b., 7ⁿ, goizanko 3^{or} eta 56^m.
- Ⓜ a. l., 14ⁿ, arratseko 10^{or} eta 16^m.
- Ⓜ a. o., 22ⁿ, arratseko 6^{or} eta 10^m.
- Ⓜ l. l., 29ⁿ, arrastiriko 3^{or} eta 55^m.




- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> 1 Asteharte. 2 Astizken. 3 Ostegun. 4 Ostirale. 5 Neskanegun. 6 Igante. 24 7 Astelehen. 8 Asteharte. 9 Astizken. 10 Ostegun. 11 Ostirale. 12 Neskanegun. 13 Igante. 25 14 Astelehen. 15 Asteharte. 16 Astizken. 17 Ostegun. 18 Ostirale. 19 Neskanegun. 20 Igante. 26 21 Astelehen. 22 Asteharte. 23 Astizken. 24 Ostegun. 25 Ostirale. 26 Neskanegun. 27 Igante. 28 Astelehen. 29 Asteharte. 30 Astizken. | <p>DONISANTORE.
 <i>Purg. arimak.</i>
 s. Ubert.
 s. Charles Bor.
 s. Zakaria.
 <i>Errelikia S.</i>
 s. Florent.
 Lao Martirak.
 s. Teodoro.
 s. Andreu Av.
 J. MARTINE.
 s. Marti.
 ELIZEN SAKR.
 s. Josafat.
 ^{sa} Gertruda,
 s Edmon.
 s. Gregori T.
 s. Odon.
 ^{sa} Elisabet Ong
 s. Felis. Val.
 A. B. Eskentzia.
 ^{sa} Zezila.
 s. Klement.
 s. Johane Kh.
 ^{sa} Kattalina.
 s. Konrad.
 <i>Abentuko 1^a</i>
 s. Maorino.
 s. Saturni.
 J. ANDREU, Ap.</p> |
|---|--|

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> 1 Ostegun. 2 Ostirale. 3 Neskanegun. 4 Igante. 5 Astelehen. 6 Asteharte. 7 Astizken. 8 Ostegun. 9 Ostirale. 10 Neskanegun. 11 Igante. 12 Astelehen. 13 Asteharte. 14 Astiz. <i>IVTh.B.</i> 15 Ostegun. 16 Ostir. <i>IVTh.B.</i> 17 Nesk. <i>IVTh.B.</i> 18 Igante. 19 Astelehen. 20 Asteharte. 21 Astizken. 22 Ostegun. 23 Ostirale. 24 Neskanegun. 25 Igante. 26 Astelehen. 27 Asteharte. 28 Astizken. 29 Ostegun. 30 Ostirale. 31 Neskanegun. | <p>s. Eloi.
 ^{sa} Bibiana.
 s. Frantzes Zab.
 <i>Abentuko 2^a</i>
 s. Sabaz.
 s. Nikolas.
 s. A brosi.
 A B, KONZEB.
 s. Jeronze.
 ^{sa} Ualalia.
 <i>Abentuko 3^a.</i>
 s Melkiade
 ^{sa} Luzia.
 s. Arzene.
 s. Mismein.
 ^{sa} Adelaida.
 s. Gazien.
 <i>Abentuko 4^a.</i>
 s. Liberat.
 s. Urbein.
 J. TOMAS, Ap.
 s. Flavien.
 s. Ogorat.
 ^{sa} Delfina.
 EGUBERRI.
 J. EZTEBE, m.
 J. JOHANE, eb.
 Haor Inozent.
 s. Tomas, K.
 s. Manzuet.
 s. Zilbestre.</p> |
|---|---|



OURTHEKO HAROAK :


BEDATSIA hasten da martchoko	20 ^{an} .
UDA hasten da arramaiatzeko	21 ^{an} .
LARRAZKENA hasten da buruilako	23 ^{an} .
NEGIA hasten da abentuko	22 ^{an} .




MERKHATIAK ETA FEIRAK EDO BAKHIAK

MAOLEN : **m.**, asteharte oroz ; **f.**, buruilako 6ⁿ. — ATHARRATZEN : **m.**, astelehenez, amoustetik ; **f.**, Phentekoste bihararenian *eta* Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANE GARAZIN : **m.**, asteleh. amous. ; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust. ; **f.**, Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentuko 26ⁿ. — GARRUZEN : **m.**, ostir. amoust. ; **f.**, agorrila 1ⁿ *eta* azaroko lehen astizkenian. — IRISARIN : **m.**, neskaneg., amoust., **f.**, baranthail. 3ⁿ *eta* aphiril. 15ⁿ. — AHAZPARNEN : **m.**, asteh. amoust. ; **f.**, Bazko ondoko astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh. amoust. — NAVARENKOSEN : **m.**, astizk. ; **f.**, Erramu aitzineko astizkⁿ, *eta* abentu 8ⁿ. — ORTHEZEN : **m.**, asteh. ; **f.**, martchoko *eta* urrietako lehen astehⁿ. — OLOROUN : **m.**, ostir. *eta* asteh. ; **f.**, maiatz. 1ⁿ ; *eta* buruila 8ⁿ, hirour eg. — PAOBEN : **m.**, astel. *eta* osteg., **f.**, Gorozum. lehen astelehⁿ, *eta* Jaondona Martinez, 8 eg. — SALIESEN : **m.**, ostegunez ; **f.**, baranth. heren astizkⁿ *eta* urrietako azken ostegunian. — SALBATARREN : **m.**, neskanegunian.





Edirengia



I. Erreboluzionia.....	25
II. Zer dabilan hor heben	32
III. Katichima uskaraz	37
IV. Laborantchaz :	
1. Uztak 1903 ^{an}	39
2. Laborarien indar handiaz, nahi balie orek bat egin.....	42
3. Fruten luzaz irañeraztiz.....	44
V. Istoria eta erasi.....	46

